



Lehia eta markoa

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako panorama politikoan, hurrengo urtean egingo diren legebiltzarrerako hauteskunde itzala geroz eta gehiago nabari da. Bozketa horietan, azken garaian ez bezala, lehia aurreikus daiteke; edo, hobe esanda, EAJk aurkari indartsu bat izango du parean, EH Bildu, hain zuzen.

Koalizio independentistak 2012an, orain dela hamaika urte jada, jeltzaleei planteatu nahi izan zien aurrez aurreko elektorala. Testuingurua eta alderdi bakoitzak zekarren joera oso desberdinak izan ziren orduan (Bildu zetorren Gipuzkoan aldundia irabaztetik eta Espainiako hauteskundeetan Amaiurrekin sabaia ukiztetik), baina EAJk aise irabazi zituen hauteskunde autonomiko haiek. Oro har, handik aurrera, Podemosen sarrera tarteko, jeltzaleek nagusitasuna mantendu dute botere instituzionalari dagokionean, Gasteizko Legebiltzarrean nahiz EAEko beste erakunde askotan, Alderdi Sozialistarekin batera kasurik gehienetan.

Baina maiatzean egin ziren Espainiako hauteskunde emaitzen ostean, EAEko egoera politikoari buruzko pertzepzioetan aldaketa zantzuak soma daitezke, nire ustez; eta nagusiki EAJri buruzko ikuspegiei dagokienean. Jeltzaleak, aspaldiko partez, ez ziren garai le moduan agertu gizartearen aurrean. Hurrengo bozketa autonomikoetan bi alderdi nagusien arteko lehia garrantzitsua izango da, EAE alderdi biko sis-

Dagoeneko ohitu
garen arren, benetan
berritasuna da
Hego Euskal Herriko
politikaren ikuspegitik
EAJ eta EH Bildu
Madrilgo eszenatokian
haien artean lehiatzea

temarantz, ñabardura askorekin oraindik, are gehiago gerturatuko litzateke. Aurrez aurreko horretan PSEk izan dezakeen pisua eta papera ere kontuan hartzekoa izango da, Madrilgo haizeen arabera aldatuko dena.

EAJren eta EH Bilduren arteko balizko lehia horretan gizarte gaiak nabarmenduko direla dirudi: batetik, arlo horiei buruzko ezinegona (Osakidetza-aren nahiz langile publikoen egoera, adibidez) adierazgarria delako, inkestek edota mobilizazioek erakusten duten bezala; eta bestetik, alderdi bakoitzak zein sektoretara zabaldu nahi duen kontuan hartzen badugu (alderdien arteko disputa nagusia ez dirudi boto abertzalea erakartzeko izango denik). Hortaz, nazio auzia, norgehiagoka horretan, ez



IKER IRAOLA ARRETXE
EHU-KO SOZIOLOGIAKO
IRAKASLEA

da lehentasuna izango, ziurrenik, ez bada gai zehatzei lotuta (Hezkuntza Legea, kasu).

Paradoxikoki, jeltzaleen eta koalizio subiranistaren arteko lehia gertatzen ari da Espainiako politikak Hego Euskal Herrian geroz eta zentraltasun handiago eskuratzearekin batera. Hedabideen agendan, baina baita, neurri batean, alderdi abertzaleen beraien jardunean ere, Madrilgo politikak leku handia betetzen du. Zentzu horretan, dagoeneko ohitu garen arren, benetan berritasuna da Hego Euskal Herriko politikaren ikuspegitik EAJ eta EH Bildu Madrilgo eszenatokian haien artean lehiatzea.

Gurea bezalako estatu propiorik gabeko herri batean, bertako eztabaida nagusitzea, bertako markoa finkatu eta erreproduzitzea, funtsezkoa da. Madrilgo politikaren egoerak hartuko duen norabidearen arabera, eta Gasteizko Legebiltzarreko hauteskundeak gerturatzuz joan ahala, ziurrenik fokua Euskal Herrirantz gerturatzen joango da, men-debaldeko hiru herrialdeetan gutxienez. Bide horretan, alderdiei loturiko jardun politikoarekin batera, instituzioez haragoko politikaren jarduna ere azpimarraitu behar dela uste dut, eztabaidak eta borrokak Euskal Herri mailan, euskal nazio markoa elikatuz, garatu daitezzen egiten duten ekarpena funtsezkoa baita. Mugimendu sozialen indarra bide honean berebizikoa izango da, eta arestian hizpide izan dugun lehia nola eragingo duten ikusteke dago. ●